

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

EHTIEO-ren organoak

TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN
ELKARGO OFIZIALA
EUSKAL HERRIA

LEHENENGO ATALA
EHTIEO-ren Batzarra

JARDUNBIDE ARAUDI
PARTIKULARRA

LEHENENGO KAPITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. Araudi honen xedea hauxe da: Euskal Herriko Lurraldeko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofizialaren organoen jardunbidea zehaztea, eta elkargokideen eskumenak eta betebeharrak finkatzea, Estatutu Orokorretan eta Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Barneko Erregeminaren Araudi Orokorrean ezarritakoaren arabera.

2. artikulua. Euskal Herriko demarkazioko egoitza Bilbon egongo da eta izen hau izango du: Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala, aurrerantzean EHTIEO.

3. artikulua. EHTIEOra atxikita egongo dira ohiko bizilekua Euskal Herrian duten elkargokideak, Barne Araudiaren 7. artikuluan ezarritako moduan, baita atzerrian bizi arren hala eskatzen duten elkargokideak ere.

4. artikulua. Elkargokideen eskubide eta betebeharrei, lanbideko jardunari, diziplina araubideari eta kode deontologikoari dagokien guztian, araudi hau indarrean dagoen Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Barne Araudiak dioenari lotuta dago.

BIGARREN KAPITULUA

5. artikulua. EHTIEO-ren Batzarra Euskal Herrian bizi diren elkargokideen borondatearen adierazpen organo gorena da eta elkargokide guztiek osatzen dute.

Lurraldeko dekanok egingo du batzar deia karguaz jabetu ondoren, ohiko bilkurarako, urtean behin gutxienez, urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoan, urteko aurrekontuaren administrazioa onartzeko, eta, ezohiko bilkurarako, EHTIEO-ko Batzordeak edo elkargora atxikitako elkargokideen zazpirenak proposatuz gero.

EHTIEO-ko Dekanoak postaz, edo bitarteko elektronikoen bidez bidaliko dio elkargokide bakoitzari deia, batzarra izan baino hamabost egun natural lehenago gutxienez. Deian batzarra zein egunetan, orduetan eta tokitan izango den eta zein gai landuko diren adieraziko da, baita, hala behar izanez gero, bigarren deialdia zein egunetan, orduetan eta tokitan izango den ere. Lehenengo eta bigarren deialdien artean ordu erdiko tartea egongo da gutxienez.

6. artikulua. Batzarrera bertaratzen den bakoitzak gehienez ere bi elkargokideren ordezkaritza eduki ahal izango du. Ordezkaritza Batzar bakoitzerako berariaz emana izango da eta idatziz erakutsi beharko da batzarra hasi aurretik. Hortaz, elkargokide bakoitzak gehienez hiru boto emateko eskubidea izango du, berea barne. Ordezkatuak emandako ordezkaritza ezeztatu ahal izango du, batzarburuari horretarako idazki bat helaraziz batzarra hasi aurretik. Ordezkaritza automatikoki balio gabetuko da elkargokidea Batzarrean fisikoki agertuz gero.

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

7. artikulua. Demarkazioko Dekanoa izango da EHTIEO-ko Batzar Nagusiaren burua eta demarkazioko Idazkariak beteko du Batzarreko idazkari egitekoa. Azken honek egingo du bilkuraren akta.

Batzarra baliozki eratutzat joko da lehen deialdian EHTIEO-ra atxikitako elkargokideen erdia baino gehiago bertan badaude edo behar bezala ordezkaturik badaude. Bigarren deialdian baliozki eratutzat joko da bertaratutako kopurua edozein dela ere. EHTIEO-ko Idazkariari dagokio bertaratuen eta ordezkaturik agiriak egiaztatzea eta Batzarrera etorritakoen zerrenda egitea.

Eztabaida Dekanoak bideratuko du, Idazkaria lagun duela, eta jendeari zuzenean eragiten dioten eztabaida eta proposamenetan parte hartzeko hitz egiten utziko dio. Batzarrak, egoki baderitza, bertaratutako elkargokideen artean bi zenbatzaile izendatuko ditu.

Gai zerrendan ageri diren gaiez baino ezin izango da erabaki. Erabakiak, normalean, proposamen idatzien gainean hartuko dira. Erabakiak hartzeko nahikoa izango da bertaratuen eta ordezkaturik baliodun botoen gehiengo soilak. Ezin izango da erabakirik hartu hitz egiteko txanda irekian.

EHTIEO-ren Batzar Nagusiaren deliberazio eta erabakiak akta batean jasoko ditu idazkariak laburbildurik. Batzarrak berak onartuko du akta Batzarra amaitutakoan edo, bestela, hurrengo Batzarrean.

Batera zein bestera onartu, aktak betearazteko indarra izango du onartzen den egunetik aurrera; dena dela, hartutako erabakiak bete egin ahal izango dira akta onartzeke dagoen bitartean ere. Ezin izango da EHTIEO-ren Batzar Nagusirik egin aurreko Batzar Nagusiko akta onartu gabe, ez onartutako erabakiak eztabaidatu, ez aurretik erabakitako gaiak berriro

bozkatu ere. Dena dela, erabakiak aldatzeko proposamena egin ahal izango da, horretarako araututako bidea erabiliz.

8. artikulua. Batzar Nagusiak elkargokideen iritzia bideratuko du, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak burututako kudeaketa lana aztertu ahal izango du, eta, egoki iritzi gero, Batzorde horren lanaren kontrako zentsurazko botoa eman ahal izango du horretarako deituko den ezohiko batzarrean. Batzar Nagusiak zentsurazko botoa onartuz gero, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak, gehienez ere bi hilabeteren barruan, erreferenduma egingo du jarraituko duen ala ez erabakitzeko. Erreferendum horren emaitza loteslea izango da.

Erreferenduma egiteko prozedura EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusirako hauteskundeetarako ezarrita dagoen prozedura bera izango da. Kontsulta EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren jarraipenari buruzkoa izango da soilik eta horri buruzko iritzia baino ez zaie galdetuko elkargokideei.

Zentsurazko botoa berretsiz gero, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak bertan behera utziko ditu bere eginkizunak eta Elkargoaren Gobernu Batzordeak hartuko ditu bere gain behin-behinean, Barne Araudiko 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua. Araudi honek aurreikusten ez duen guztian, Telekomunikazio Ingeniariei Elkargo Ofizialak indarrean duen araudia aplikatuko da.

II. ATALA
EHTIEO-ko Lurraldeko Gobernu
Batzordea

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Oroker Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

10. artikulua. EHTIEO-ko

Lurraldeko Batzorde Nagusia da demarkazioko organo exekutiboa, zuzendaritzakoa eta administraziokoa, bere eskumenen barruan dagoen guztian.

Hauek dira EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusia osatzen dutenak: EHTIEOko Dekanoa, Dekanordea, Idazkaria eta 8tik 12ra bitarteko bokal. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak berak esleituko dizkie kideei diruzaintzaren eta jardueren ardurak. Bere Idazkaria izango da EHTIEO-ko Batzordeko Idazkaria.

Ohiko bilkurak gutxienez hiru hilabeterik behin izango dira. Ezohikoak lurraldeko Dekanoaren ekimenez edo bokalen gehiengoak eskatuta egingo dira. Zuzendaritza Batzordearen bilkura baliozki eratzeko, kideen erdia bertan egon behar da.

Baliozki eraturako Batzordeen erabakiak aho batez edo bertaratuen eta ordezkatuaren gehiengoz hartuko dira.

EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko karguak ohorezkoak eta doakoak dira, 16. artikuluan idazkariak xedatutakoa salbuetsita.

EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko kideei, edo enkargu bereziren bat ematen zaien elkargokideei, EHTIEOren urteko aurrekontuaren barruan, bidai ordain, dieta edo asistentzia gisa dagozkien eskubideak elkargoan indarrean dauden irizpide orokorren arabera izango dira.

11. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari honako eskumenak dagozkio, Gobernu Batzordeak bereganatu ezik:

Elkargoaren ordezkari izatea Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren kideen aurrean.

Elkargoaren ordezkari izatea Euskal Autonomia Erkidegoko partikular eta enpresen aurrean, baita bertako administrazio maila guztietako agintari eta erakundeen aurrean eta Estatuko Administrazioaren aurrean ere, Gobernu Batzordeari egindakoaren berri eman beharko diolarik.

Lan profesionalak ikus-onestea eta, hala dagokionean, lan hori egiteagatik dirua biltzea.

Gobernu Batzordearen eskumenekoak diren gaien artean, Lurraldeko demarkazioari baino ez dagozkionetan esku hartzea, Gobernu Batzordeak hala erabakiz gero.

12. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko kideak botazio unibertsal, berdinean, zuzeneko eta sekretu bidez hautatzen dira, hautagai zerrenda osoen gainean. Euskal Herriko Elkargora atxikitako elkargokideak dira hautesle eta hautagai.

Bokalen toki hutsak Batzar Nagusiak beteko ditu, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak proposatuta.

EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko dimititu nahi izanez gero, Batzar Nagusiari aurkeztu beharko dio dimisioa, honek onartu edo atzera bota dezan. Lehenengo kasuan kargua utzi egingo dute kideek eta bigarrean jarraitu. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko kide guztiek Batzordea utziz gero, Gobernu Batzordeak hartuko ditu bere gain haren egitekoak aldi baterako, eta hauteskundeetarako deia egingo du hilabeteren barruan, gainerako agintaldirako.

13. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak eskumen hauexek ditu, Gobernu Batzordeak bereganatu ezik:

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

- a) Legez eratzea, karguak hartuz.
- b) EHTIEO-ren kide anitzeko ordezkariak betetzea eta erakunde honen iritzia modu ofizial eta publikoan adieraztea bere jardura eremukoak diren gaien gainean.
- c) EHTIEO-ren esparrukoak diren erakundeetan ordezkariak izendatzea.
- d) Bere esparrukoak diren agintariei eta erakundeei ikerketak, txostenak eta irizpenak aurkeztea.
- e) Administrazioarekiko alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko erabakia hartzea eta Elkargoko Gobernu Batzordeari errekurtsio administratibo eta jurisdikzionalak aurkezteko proposamena egitea.
- f) EHTIEO-ren esparruan Elkargoaren Estatutuak, araudiak eta organoen erabakiak betetzea eta betearaztea.
- g) Zenbait konturen berri ematea eta bere eskumenen barruan dauden gaien gaineko erreferenduma egitea.
- h) Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta, EHTIEO-ra atxikitako kideen zerrendak eguneratuta edukitzea.
- i) Interesatuak eskatuz gero, EHTIEO-ren enkarguetatik sortzen diren betebeharren gaineko desadostasunetan bitartekari lana egitea.
- j) Elkargoko organo orokorren aurrean EHTIEO-ra atxikitako kideen eta gainerako elkargokideen bitarteko izatea, bere esparrukoak eta eskumenekoak diren gaietan.
- k) Auzi judizialetan, ofiziozko txandan, peritu moduan parte hartzeko deitu litezkeen elkargokideen zerrenda ematea EHTIEO-ren esparruko epaitegiei, edo berak izendatzea Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta, kasuaren arabera.
- l) Lanbideko, prestakuntzako eta kultura arloko ekintzak antolatzea.
- m) EHTIEO-ko zerbitzuen funtzionamendua kontrolatzea.
- n) Elkargoaren Gobernu Batzordeak bere esku utzitako bilketak egitea, Estatutuetan eta Barne Araudian ezarritakoaren arabera, eta EHTIEO-ren aurrekontua administratzea.
- o) Dagokion esparruan batzorde irekiak sortzea, bere ekimenez edo derrigorrez, EHTIEO-ra atxikitako 25 kidek gutxienez eskatuz gero.
- p) Gai zehatzen inguruko ponentziak eta lan taldeak eratzea.
- q) Jardueren laburpena idaztea, elkargokideei jardueren berri emateko.
- r) Gobernu Batzordeari EHTIEO-ren aurrekontu proposamenak aurkeztea, baita aurrekontu horien aplikazioaren ondoriozko behin-behineko eta behin betiko likidazioak ere.
- s) EHTIEO-ren egoitza tokiz aldatzea, udalerrri beraren barruan.
- t) Barne batzorde exekutiboak sortzea.

EHTIEO-ko Dekanoa

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

14. artikulua. EHTIEO-ko Dekano kargua izateko derrigorrezkoa da EHTIEO-ra atxikitako elkargokidea izatea, hauteskundeak egiteko eguna baino urtebete lehenagotik gutxienez.

EHTIEO-ko Dekanoa EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren eta Batzar Nagusiaren burua da, baita Elkargoak Euskal Herrian egiten dituen bilereana ere. Berak zuzentzen du eztabaida eta kalitatezko botoa emateko ahalmena du. Demarkazioaren eta Elkargoko Dekano-presidentearen ordezkaria da, aipatutako baldintzetan.

Honako zeregin hauek dagozkie: EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren erabakiak berrestea eta betearaztea, erreferendumerako deia egitea, inkestak egitea, bere esparruko idazkiak, txostenak eta komunikazioak onestea, idazkariak egindako ziurtagiriak ontzat ematea, demarkazioko zerbitzuak zuzentzea eta elkargoaren ekimena sustatzea bere esparruan.

Era berean, ahalmena du premiazko kasuetan lanbideko intrusismo eta lehia auzietan ebazteko, Administrazioarekiko alegazioak aurkezteko demarkazioaren esparruan, eta Gobernu Batzordeari errekurtsio administratiboak eta jurisdikzionalak aurkeztea proposatzeko, gero EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari guztiaren berri ematekotan.

Dekanoak EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren ekintza zuzentzen du eta batzordekideen eginkizunak koordinatzen ditu, norik bere kudeaketan duen eskumen eta erantzukizun zuzenaren kalterik gabe.

Dekanoa kanpoan egonez gero, gaixorik egonez gero, aldi baterako kargugabetuz gero, kargua utziz gero edo hilez gero, Dekanordeak ordezkaturiko du, azken kasu bietan agintaldia amaitu arte, eta gainerako kasuetan arauzko eskuordetzan.

EHTIEO-ko Dekanordea

15. artikulua. Dekanordeari dagokio EHTIEO-ko Dekanoa ordezkatzeko hau kanpoan egonez gero, gaixorik egonez gero, aldi baterako kargugabetuz gero, hilez gero, edo dena delakoagatik kargua utziz gero, araudi honetan eta Elkargoaren Estatutuaren eta Barne Araudi Orokorrean Dekanoari aitortzen zaizkion eskumen guztiekin.

EHTIEOko Idazkaria

16. artikulua. EHTIEO-ko Idazkaria Elkargoko Idazkari Nagusiaren menpe dago organikoki, Dekano-presidenteak eskuordetuta, eta EHTIEO-ko Dekanoaren menpe funtzionalki.

Idazkaria EHTIEO-ko Batzar Nagusiko idazkaria eta EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko idazkaria ere bada. Bera ez dagoenean, elkargora atxikita denbora gehien daraman bokalak ordezkaturiko du.

Honako eskumen hauek ditu:

- a) EHTIEO-ko Batzar Nagusiaren eta EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren erabaki eta ebazpenen fede ematea eta EHTIEO-ra atxikitako elkargokideei horien berri zabaltzea.
- b) Batzar Nagusiaren eta EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren aktak idaztea eta akta liburuak zaintzea.
- c) EHTIEO-ko Dekanoari laguntzea elkargoko organoen bilkuretan, buru zereginetan.
- d) EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari eskuordetzan emandako eginkizunak ikuskatzea.
- e) Hauteskundeetako mahaiburuari laguntzea behar den guztian.

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Oroker Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

EHTIEO-ko Idazkariak EHTIEO-ko idazkari exekutiboaren eginkizunak ere beteko ditu eta hori dela-eta lansaria jaso ahal izango du dedikazioaren arabera. Idazkariaren eginkizun exekutiboak esperientzia frogatua duen EHTIEO-ra atxikitako elkargokide baten esku utzi ahal izango dira. Horretarako, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak izendapena proposatuko dio Gobernu Batzordeari. Honako eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- a) COIT-eko zerbitzu orokorrekin koordinatuta eta Idazkari Nagusiaren zuzendaritzapean, bere lurralde-demarkazioan lan profesionalak erregistratzeko eta ikus-onesteko izapideak egitea, kultur arloko eta prestakuntzako ekintzak antolatzea, artxiboa eramatea, EHTIEO-ko dokumentazioa zuzendu eta zaintzea, materialak kudeatzea eta abar.
- b) Normalean gobernu organoen eta eratzen diren batzordeen bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe, elkargoko organoetako kideei eskatzen dioten guztian laguntzeko.
- c) EHTIEO-ko diruzainari laguntzea dagozkion zereginetan.
- d) Idazkari Nagusiari laguntzea beste lurralde-demarkazioetako elkargoekiko eta Estatuko eta atzerriko elkarte eta elkargo profesional guztiekiko harreman administratiboetan.

EHTIEO-ko Diruzaina

17. artikulua. Diruzainak eginkizun hauek izango ditu:

- a) EHTIEO-ren fondoak bildu, zaindu eta administratzea, Dekanoak agindutako ordainketak eta kobrantzak egitea eta kontabilitatea

behar bezala eta Elkargoko zerbitzu orokorrekin koordinatuta egin dadin arduratzea, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari kontuak emateko.

- b) Sei hilarik behin EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari EHTIEO-ren funtzionamendu ekonomikoaren kontuak ematea, baita fondoan, diru-sarreraren eta gastuen mugimenduaren eta aplikazioaren berri ere.
- c) Urteko ohiko Batzar Nagusiaren aurretik, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari hurrengo urteko aurrekontuak aurkeztea, honek onar ditzan eta, ondoren, Batzar Nagusiari aurkez diezazkion.
- d) Dekanoarekin edo Dekanordearekin batera, eta COIT-en Gobernu Batzordeak aurretiaz baimena emanda, kontu korronteak, gordailu-kontuak edo aurrezki-kontuak ireki eta ixtea eta EHTIEO-ren baliabideak behar den bezala administratu eta erabiltzea.

EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko bokalak

18. artikulua. Bokalek EHTIEO-ko Dekanoak esleitzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, araudi honek esleitzen dizkien egitekoez gain.

Leku hutsak nola bete

19. artikulua. Kargua bete ezina dakarren arrazoi justifikaturen batengatik EHTIEO-ko Dekanoak karguari uko eginez gero, Dekanordeak ordezkatu du EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiaren agintaldia amaitu artean.

Arrazoi justifikaturen batengatik Dekanordeak karguari uko eginez gero,

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

lehenengo bokalak ordezkatu du, honek huts eginez gero, bigarren bokalak, eta hala hurrenez hurren.

Arrazoi justifikaturen batengatik Idazkariak karguari uko eginez gero, lehenengo bokalak ordezkatu du, honek huts eginez gero, bigarren bokalak, eta hala hurrenez hurren.

Arrazoi justifikaturen batengatik Diruzainak karguari uko eginez gero, lehenengo bokalak ordezkatu du, honek huts eginez gero, bigarren bokalak, eta hala hurrenez hurren.

EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko bokal postuak hutsik geldituz gero, hautagai zerrenda hautetsian ageri ziren ordezkoei beteko dituzte, zerrenda hartako hurrenkeran. Bokalen numerazioa berrantolatu egingo da lehengo ordena erlatiboari eusteko eta ordezkia geldituko da azken lekuan. Dekanoak proposatuz gero, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak hutsik gelditutako lekuak beste ordena batean betetzea erabaki ahal izango du.

HIRUGARREN KAPITULUA Baliabide ekonomikoak eta ondare erregimena

20. artikulua. Elkargoaren ondarea bakarra da, baina ondasunen erabilera organo orokorrei edo demarkazioei esleituta egon daiteke. Aurrekontu orokorrean esleipen bereziak egingo dira organo eta zerbitzu orokorrentzat, erakunde eta demarkazioentzat. Horretarako, bakoitzari atxikitako elkargokide kopurua, eskuordetutako bilketak eta aurreko urtean izandako gastuak eta sustatutako ekintzak hartuko dira kontuan, eta haztapan faktoreak eta gai konstante bat sartuko dira.

Honetarako haxe izango da gai konstantea: Gobernu Batzordearen iritziz eratuta dauden erakundeak eta demarkazioen iraupena bermatzeko beharrezkoa den zuzkidura, formalki desegiten ez diren artean.

21. artikulua. EHTIEO-ren diru-zuzkidura

1.- Demarkazioen diru-zuzkidurak Elkargoaren aurrekontu orokorrak jasoko ditu, Estatutuen 64.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Lurralde ereduaren egonkortasun ekonomikoa eta elkargokideen arteko solidaritatea bermatzeko, demarkazioek Elkargoaren aurrekontuetan sartutako diru-sarrera guztien onura jasoko dute, zeinek bere jardueraren proportzioan, diru-sarrera horiek sortzen diren lekuan sortzen direla ere.

2.- Demarkazio bakoitzaren urteko diru-zuzkidura haxe izango da: Elkargoaren aurrekontuko diru-sarreraren %50ari demarkazioaren aurrekontu koefizientea (DAK) aplikatuta ateratzen dena. DAK hori urtean-urtean erabakiko da abenduko ohiko Batzar Nagusian, aurreko urteko datu errealetan oinarritutako irizpide objektibo eta uniformeak erabiliz. Aurreko urteko datu hauek hartuko dira kontuan:

Demarkazio bakoitzeko egoitzan aurkeztutako ikus-onetsien kopurua eta/edo ikus-onesteagatik sortutako eskubideak.

3.- Estatutuen 64.5 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lurralde-demarkazioen arteko desorekak zuzentzeko helburuz, Lurraldeko Batzordeek proposatuta eta Gobernu Batzordeak aurretiaz baimena emanda, lurralde-demarkazioek Lurraldeen arteko Konpentsazio Fondotik dagozkien kopuruak gehitu ahal izango dizkiete euren aurrekontu-zuzkidurei.

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

4.- Urteko ekitaldia amaitutakoan gelditzen den saldoa, hurrengo ekitaldietarako metatu ahal izango da eta euren aurrekontu partikularrekoa izango da.

LAUGARREN KAPITULUA Hauteskunde erregimena

22. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak hauteskunde deia egingo du bere agintaldia amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

23. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko karguak lau urteko eperako hautatuko dira, Batzordeak berak deitutako hauteskundeen bidez.

Hauteskunde deia egiteko erabakia hartutakoan, COIT-eko Gobernu Batzordeari horren berri eman eta elkargokideei jakinaraziko zaie lurralde-demarkazioko komunikabideen bitartez eta posta arruntaren eta/edo elektronikoaren bitartez, hautatzeko eta hautatuak izateko eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.

Hauteskunde deia hauteskunde eguna baino laurogeita hamar (90) egun lehenago gutxienez egin beharko da.

24. artikulua. Hauteskunde deia egitea erabakitzearekin batera, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak hauteskunde-mahaiko kideak izendatuko ditu, elkargokideen artean zozketa eginda. Hauteskunde-mahai hori arduratuko da hauteskundeen prozedura zuzendu, antolatu, kontrolatu eta jarraipena egiteaz.

Hauteskunde-mahaia lau kide izango ditu: mahaiburua, mahaiburuordea, idazkaria eta idazkariordea. Kargu horietako bakoitzerako elkargokide bi izendatuko dira, bata titularra eta bestea

ordezkoa eta hamar eguneko epea izango dute izendapena onartzeko edo ukatzeko. Hauteskunde-mahaiko kide kargua nahitaez bete beharrekoa da arrazoizko hiru kasu hauetan izan ezik: gaixorik egonez gero, hauteskunde egunean arrazoi justifikaturen batengatik kanpoan izanez gero edo hautagai aurkeztuz gero.

Izendatutako zortzietan kargu guztiak betetzen ez badira, titularren zenbakiaren hurrengo zenbakia duten elkargokideek beteko dituzte mahaia osatzeko falta diren karguak. Titularra hautagai zerrenda bateko kidea bada, ordezkokak beteko du kargua eta ordezkoa ere hautagai bada, hurrengo zenbakia duen elkargokideak ordezkatuko du.

Hauteskunde-mahaia baliozki eraturatzen joko da bileretara kideen gehiengo bertaraturaz gero, eta erabakiak bertaratuaren gehiengo soiluz hartuko dira. Hauteskunde prozesuan sor litezkeen erreklamazio, zalantza eta interpretazioak ebazteko behar diren ahalmenak izango ditu eta hiru eguneko epea izango du gehienez ebatzia emateko.

25. artikulua. Elkargokideak EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusirako hautagai zerrenda bat osatuta aurkeztu ahal izango dira hauteskundeetara. Halakoetan, bost (5) ordezkok sar litezke gehienez bokal izendapenez eta numeratuta bederatzigarren bokaletik aurrera.

Hauteskundeetara aurkeztu nahi duten elkargokideek berrogeita bost egun naturaleko epea izango dute hautagai zerrenda aurkezteko lurralde-demarkazioko Idazkaritzan, hauteskunde deia argitara ematen den egunean zenbatzen hasita.

Hautagai zerrendak itxiak izango dira eta ondo zehaztuko dituzte kargu guztiak.

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

Hautagai zerrendan, hautagai guztien datu hauek agertu beharko dira: izena, abizenak, helbidea, elkargokide zenbakia, NAN zenbakia, zein kargutarako aurkezten den, data eta sinadura.

26. artikulua. Hautagai zerrendak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan, hauteskunde-mahaiak aurkeztutako hautagai zerrendak aztertu eta baliozki aurkeztutakoak aldarrikatuko ditu. Atzera botatako hautagai zerrenden buruei zerrenda ez onartzeko arrazoiak helaraziko dizkie, jasoko dituztela ziurtatzen duen bideren batez, hiru eguneko epean akatsak zuzendu ditzaten.

Akatsak zuzentzeko epea igarota, hautagai zerrendak aldarrikatuko dira eta elkargokideen artean haien berri zabalduko.

Hautagai zerrendarik aurkeztu ez edo aurkeztutakoak baliozkoak ez badira, une horretan dagoen EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak jarraituko du bere eginkizunetan eta hauteskunde deia egingo du sei hilabeteko epean.

27. artikulua. Behin hautagai zerrendak aldarrikatuta, eta bozketa egiteko unera arte, hauteskunde kanpaina egiteko epea zabalduko da. Hautagai bakoitzak egoki deritzen bitarteko eta bideak erabili ahal izango ditu bere kontura. Kanpainan elkarrenganako, lehiakideenganako, elkargokide guztienganako eta elkargoarenganako errespetu arauak bete beharko dira.

28. artikulua. Hautagai zerrenda oso bakarra aurkeztuz gero, eta hauteskunde-mahaiak baliozkotzat aldarrikatuz gero, zerrenda hori legez hautetsizat joko du.

29. artikulua. Hautagai zerrenden bozketa boto-txartel bakar batean egingo da eta elkargokide hautesle bakoitzak bere botoa adieraziko du bertan.

Botoa era hauetara eman ahal izango da:

a) Bozketa egunean hautesleak boto-txartela hauteskunde-mahaira eramanda.

b) Postaz edo antzeko bideren batez hauteskunde-mahaiburuari zuzendutako gutunazal itxi bat bidalita. Gutunazalean honako hauek azalduko dira: hauteslearen izena, abizenak, helbidea, elkargokide zenbakia eta NAN zenbakia; eta gutunazalaren barruan honako hauek sartu beharko dira: NANaren edo elkargokide txartelaren fotokopia eta gutunazal itxi bat, atzean hautesleak sinatuta eta barruan boto-txartela duela. Era honetara emandako botoak bozketa hasi aurretik egon beharko dira hauteskunde-mahaiburuari esku.

Hauteskunde-mahaiak zehaztuko du zein ordutan hasi eta amaituko den bozketa.

Bozketa bukatutakoan, hauteskunde-mahaiko kideek botoak zenbatuko dituzte. Berdinketa gertatuz gero, dekanorik zaharrena daukan zerrenda hautatuko da.

Hala hautatua izan den EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak berehala hartuko ditu karguak, errekurtsioak jar balitezke ere.

30. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiko kide berriek karguak hartu arte, arauzko txandakatzea dela eta Batzordea utzi behar dutenek jarraituko dute euren eginkizunetan.

Kargua utziko duen Dekanoak egingo du hautetsiek karguak hartu behar dituzten EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde

EUSKAL HERRIKO LURRALDEKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN JARDUNBIDE ARAUDI PARTIKULARRA

Lurraldeko Batzorde Nagusiak 2006.eko martxoaren 6an onartua

Batzar Orokor Arruntak 2006.ko abenduaren 18an onartua

Nagusiaren bilerarako deia. Bilera horretan doazen kideak eta datozenak egongo dira eta batzuek karguak utzi eta besteek hartu egingo dituzte, hurrenez hurren.

31. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak ezarritako epeen barruan hauteskunde deirik egiten ez badu, bi hilabeteren buruan COIT-eko Gobernu Batzordeak bereganatuko ditu EHTIEO-ko Batzordearen eginkizunak eta hauteskunde deia egin beharko du handik hamabost egunera gehienez.

Hauteskundeetara deitzeko eginbeharra bete ez duen EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak kargu guztiak utziko ditu une horretan eta batzordekideak ezin izango dira hurrengo hauteskundeetara aurkeztu.

BOSGARREN KAPITULUA

Jardunbide Araudi Partikularra aldatzea

32. artikulua. Araudi hau aldatzeko erabakia EHTIEO-ko Batzar Nagusiak hartu beharko du ezohiko bilkuran, Estatutuetan eta araudi honetan Batzar Nagusia elkartzeko eta erabakiak hartzeko ezarrita dauden arauak jarraituz.

33. artikulua. Araudi hau aldatzeko proposamena EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak egin beharko dio Batzar Nagusiari.

Batzar Nagusia deitu aurretik, EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak aldatu beharrekoen gaineko txostena eskatu beharko dio Elkargoko Kontseiluari, eta zerbait ordezkatu nahi izanez gero, ordezeko testua proposatu beharko dio. Txostena hilabeteko epearen barruan eman beharko zaio EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiari. Dena dela, proposatutako aldaketak munta

edo garrantzi handikoak izanez gero, epea bi hilabetera luzatu liteke.

Elkargoko Kontseiluaren txostena ez da loteslea izango, baina Batzar Nagusiari ezagutarazi beharko zaio aldaketak erabaki aurretik.

34. artikulua. EHTIEO-ko Lurraldeko Batzorde Nagusiak, bere demarkazioaren esparruan, araudi hau garatzeko eta hobeto ulertzeko egoki deritzen instrukzioak eman ahal izango ditu, bertan aurreikusita ez dagoen guztiari buruz.